

# Giza eskubideak El Salvadorren: zigorgabetasun historikoa eta salbuespen erregimena



LAS DIGNAS



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa

HEGOKO ETORRIKIN GAZTE GAITURAK FORTAZKUNTZAN ERABILTZEKO  
HEGOKO ETORRIKIN GAZTE GAITURAK FORTAZKUNTZAN ERABILTZEKO

Argitalpen hau *Fortalecimiento de defensoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación con enfoques de género y local-global. Intercambio de aprendizajes, formación y creación de recursos pedagógicos* (PRO-00342022K3-0021) proiektuaren esparruan egin da.

Finantzatzailea:



Giza eskubideak El Salvadorren: zigorgabetasun historikoa eta salbuespen erregimena

Koordinazioa: Gloria Guzmán Orellana (Hegoa)  
eta Larissa Villacorta Álvarez (Las Dignas)

Argitaratzaileak:



**LAS DIGNAS**

[www.lasdignas.org.sv](http://www.lasdignas.org.sv)

Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida-Las Dignas.

Avenida Bernal No 16 – S, colonia Satélite

San Salvador, El Salvador. Telf: (503) 2529-5800



[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre, 81

48015 Bilbao

Tel.: (34) 946 01 70 91

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza, 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: (34) 943 01 74 64

UPV/EHU

Koldo Mitxelena Biblioteka

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: (34) 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

Diseinatzailea eta maketatzaila: Marra, S.L.

ISBN: 978-84-19425-38-6

2024



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	4
<b>2. Aurrekariak: giza eskubideen urraketak gatazka armatuan zehar</b>	5
<b>3. Egia, justizia eta erreparazioa: Estatuaren zorrak</b>	6
<b>3.1. Bilaketa Batzorde Nazionala, autonomia eta baliabide gutxi</b>	7
<b>3.2. DNA Datuen Banku Nazionala, bete gabeko konpromisoa</b>	7
<b>3.3. Trantsizioko justiziako legerik ez</b>	7
<b>3.4. Artxibo militar eta polizialeterako sarbidea oztopatzea</b>	8
<b>4. Birmilitarizazioa, autoritarismoa eta inboluzio demokratikoa</b>	9
<b>4.1. Segurtasun militarizatua eta salbuespen erregimena</b>	9
<b>4.2. Memoria historikoaren negazionismoa</b>	11
<b>4.3. Gardentasunik eta kontu ematerik ez</b>	12
<b>5. Ondorioak</b>	16
<b>6. Bibliografia</b>	17

# 1. Sarrera

---

Txosten hau Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuak eta El Salvadorreko Las Dignas duintasunaren eta bizitzaren aldeko emakumeen elkarteak egin dute. Txostenaren helburua da El Salvadorreko gatazka armatuan zehar (1980-1992) egindako krimenen zigorgabetasunari eta giza eskubideen gaur egungo krisiari buruz kritikoki hausnartzen laguntzea.

El Salvadorreko Estatuak gatazka armatuaren biktimekin duen zorra gero eta larriagoa da, ez baitago egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermeen arloko politika publikorik. Horrekin batera, 2022ko martxoan salbuespen-erregimena onartu zenetik giza eskubideen urraketa berriak gertatu dira. Gainera, Biltzar Legegileak, gobernuan dagoen Nuevas Ideas alderdiaren kontrolpean, etengabe berritu du salbuespen erregimen hura.

Hala, aurreko diktadura militarretako eta gatazka armatuko errepresio-praktikak berritzen ari dira, eta gobernuak Estatuaren botere guztiak bildu ditu exekutiboan. Izan ere, gobernuaren ezaugarrietako bat da populismo zigortzailea, hau da "operazio ideologikoa, manipulaztailea eta atzerakoa, 'herriaren gobernu herriaren alde' mitoari eusten diona eta arazo sozialen arrazoi estrukturalak ezkutatu nahi dituen, ikuspegi autoritario eta neokontserbadore batetik" (Antón-Mellón *et al.*, 2017: 7). El Salvador, gaur egun, "atzerapen demokratiko larrienak dituzten hiru herrialdeen artean" aurkitzen da, "Afganistan eta Myanmarren atzetik", eta hautes-autokrazia gisa kalifikatu izan dute (Cristosal, 2024a: 9-10).

Testuinguru horretan, giza eskubideen defentsarako hainbat ekintza burutu behar dira, hala nola informazioa biltzea, giza eskubideen urraketak dokumentatzeko eta egoera ikuspegi historiko batetik aztertzeke. Asmo horrekin, lan hau azterketa dokumentalean oinarritu da; izan ere, askotariko iturri bibliografikoak erabili ditugu, hala nola artikulak, instituzioen eta gizarte erakundeen txostenak, araudiak, prentsako albisteak eta abar.

## 2. Aurrekariak: giza eskubideen urraketak gatazka armatuan zehar

---

El Salvadorreko Egiaren Batzordea gobernuak eta Askapen Nazionalerako Farabundo Martí Fronteak (FMLN) 1992an sinatutako Bake Akordioen ondorioz sortu zen. Batzordeak gatazka armatuan zehar egindako giza eskubideen hainbat urraketa ikertu zituen. Hala, 1993ko bere azken txostenean (“De la locura a la esperanza. La guerra de 12 años en El Salvador”), Batzordeak Estatuaren eragileei, talde paramilitarrei eta heriotzaren eskuadroiei leporatu zizkien urraketa gehienak, hala nola judizioz kanpoko exekuzioak, sarraskiak, desagertze behartuak eta torturak.

Txostenak hainbat sarraski azpimarratzen ditu; horien artean, El Mozoten eta inguruan egindakoa (Morazán departamendua). Hura 1981ean gertatu zen eta “garai modernoan Latinoamerikan gertatutako sarraskirik larriena” izan da. Hain zuzen ere, biztanleria zibilak jazarpena, hilketa masiboak, sexu-bortxaketak, torturak eta ondasunen eta abereen suntsiketa jasan zituzten, Estatuak matxinoen aurka planifikatutako operazio baten esparruan. Erregistratutako datuen arabera, 978 lagun hil zituzten, horietatik 553 adinez txikikoak, 477 hamabi urtetik beherakoak eta 248 sei urtetik beherakoak (Cristosal, d.g.)<sup>1</sup>. Indar Armatuak egindako dozenaka sarraskien artean, beste adibide nabarmen bat da El Calabozoko sarraskia (San Vicente departamendua). Horretan 200 lagun baino gehiago hil zituzten.

Gerran zehar egindako giza eskubideen urraketa larrien artean, kalkulatu da bederatzi mila lagunek baino gehiagok desagertze behartua jasan zutela Estatuaren eragileen eskutik. Hura delitu jarraitua edo iraunkorra da, oraindik ere ez baita biktimen kokapena ezagutzen. Tortura Estatuak milaka pertsonaren aurka planifikatutako eta erabilitako beste indarkeria-modu bat izan zen. Halaber, gerrako indarkerien artean lekualdatze behartua ere aurkitzen da; hain zuzen ere, milioi erdi lagun inguru herrialde barnean lekualdatu ziren, eta beste milioi batek beste herrialde batzuetan bilatu behar izan zuten babeserik gabe (Mendia Azkue, 2014: 172).

Egiaren Batzordeak ez zuen sexu-indarkeria delitu autonomo gisa ikertu, eta, hortaz, ez zuen haren irismenari buruzko datuak erregistratu. Geroago, hainbat ikerketak egiaztatu dute sexu-indarkeria ere modu planifikatu eta sistematikoan erabili duela El Salvadorreko Estatuak, sarraskien, atxiloketen eta torturen testuinguruan (CPDH, 2006; Guzmán Orellana eta Mendia Azkue, 2013: 60-64; Guzmán Orellana, 2024).

---

1 Giza Eskubideen Amerika Arteko Auzitegiak gertakari horiek eta El Salvadorreko Indar Armatuaren erantzukizuna aitortu onartu zituen honako kasu honetan 2012ko urriaren 25ean emandako epaian (Caso Masacres de El Mozote y lugares aledaños Vs. El Salvador): [https://corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec\\_252\\_esp.pdf](https://corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec_252_esp.pdf)

### 3. Egia, justizia eta erreparazioa: Estatuaren zorrak

---

El Salvadorreko bake-prozesua, Nazio Batuen bitartekaritzarekin, gatazkak konpontzeko adibide nabarmen eta arrakastatsu gisa aurkeztu zen nazioartean, nahiz eta, bakearen erai-kuntzaren aurka, egindako krimenengatik justizia lortzeko aukera guztiak blokeatu egin zituzten, Amnistia Orokorren Legearen (1993) bitartez. Legeak zigorgabetasuna finkatu zuen eta egiari, justiziarri, erreparazioari eta ez errepikatzeko bermeei buruzko agendaren garapena blokeatu zuen: “Amnistiaren Lege zabalak eta absolutuak isiltasunaren aliantza itxi zuen, gaiaren arloko nazioarteko estandar guztien aurka” (DPLF, 2019: 1).

Emaitza gisa, trantsizioko justizia gauzatzeko dago El Salvadorren. Izan ere, erantzuleen babesa lehenesten dute biktimen eskubideen gainerik. Giza eskubideen aldeko erakundeak batez ere emakumeek osatzen dituzte (Guzmán Orellana eta Mendia Azkue, 2013), eta, baliabide gutxi izan dituzten arren, irmotasunez salatu dute zigorgabetasuna, eta biktimen alde lortu diren neurri judicial eta politiko urriak sustatu dituzte. Hala, 2016an, Amnistiaren Legearen aurkako hainbat errekurtso aurkeztu ondoren, Justizia Auzitegi Gorenak Legearen konstituzio-kontrakotasun epai bat eman zuen. Haren hitzetan, legea “ez da bateragarria Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioarekin eta Estatuaren nazioarteko betebeharrekin, horiek gatazka armatuan zehar egindako giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak ikertzera eta zigortzera behartzen baitute” (DPLF, 2019: 2).

Epaiak itxaropen ugari piztu bazituen ere, hurrengo urteetan ez da aurrerapen handirik egon trantsizioko justiziaren arloan. Herrialdeko biktimekin eta gizarte erakundeekin batera, Giza Eskubideen Amerika Arteko Batzordeak eta Torturaren aurkako Nazio Batuen Batzordeak, besteak beste, adierazi dute El Salvadorreko Estatuak ez dituela giza eskubideen arloko obligazioak bete. Gainera, ez ditu garrantzi handiko hainbat tresna berretsi, hala nola Pertsona oro Desagertze Behartuen aurrean Babesteko Nazioarteko Hitzarmena, Pertsonen Desagertze Behartuari buruzko Amerika arteko Konbentzioa, Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Apalesgarrien aurkako Konbentzioaren Eskumeneko Protokoloa, edota Gerrako Krimenen eta Gizateriaren Aurkako Krimenen Preskribaezintasunari buruzko Konbentzioa.



Jarraian, Estatuak gatazka armatuko biktimen eskubideekin duen konpromiso ahula edo konpromisorik eza erakusten duten hainbat adibide aurkeztuko ditugu.

### 3.1. Bilaketa Batzorde Nazionala, autonomia eta baliabide gutxi

Biktimen mugimenduko erakundeek eta gizarte zibileko beste erakunde batzuek, giza eskubideen arloan desagertze behartuari lotuta egiten duten etengabeko lanaren parte gisa, Pertsona Heldu Desagertuen Bilaketa Batzorde Nazional bat (CONABUSQUEDA) sortzeko ekimena aurkeztu zuten Bake Akordioaren 25. urteurrenean. Batzordea 2017ko abuztuko 21eko 33. Dekretuaren bitartez sortu zen, Sánchez Cerén presidente zela<sup>2</sup>. Hala ere, sortu zenetik, Bilaketa Batzorde Nazionalak zailtasun asko izan ditu bere autonomia eta aurrekontu eskasaren ondorioz. Horrek, bada, gatazka armatuan zehar indarrez desagertutako pertsonak aurkitzeko eta identifikatzeko lana oztopatzen du. Esate baterako, 2023an, erakunde horri esleitutako aurrekontua 299.525 dolarrekoa izan zen, eta, 2024an, 268,470 dollarrera murriztu zen.

### 3.2. DNA Datuen Banku Nazionala, bete gabeko konpromisoa

Biktimen premiazko beste eskaera bat DNA Datuen Banku Nazional bat sortzea izan da, gorpuzkien identifikazioa errazteko eta gatazka armatuan gertatutako desagertze behartuko kasuak argitzen laguntzeko. 2021. urtean, Biltzar Legegileak DNA Datuen Banku Nazionalaren Legea onartu zuen (815 Dekretua), baina gobernuak ez du oraindik tresna hura sortu, eta, ondorioz, desagertutako pertsonen bilaketa eta identifikazioa oztopatzen jarraitzen du. 2022ko uztailera arte, CONABUSQUEDAK DNA probak egin zituen 165 kasutan, 307 senideri laginak hartuz. Ahalegin horiek, DNA Datuen Bankurik gabe, zatikatuak eta mugatuak dira.

### 3.3. Trantsizioko justiziako legerik ez

Amnistiaren Legearen konstituzio-kontrakotasuneko epaian ezarritako obligazioak betetzearen jarraipenean, Justizia Auzitegi Gorenak biktimen oinarritzko eskubideak (justizia lortzeko aukera, erreparazio integrala, egiarako eskubidea eta gizateriaren aurkako krimenak ez errepikatze bermea) errespetatzen zituen lege bat onartzeko eskatu zion Biltzar Legegileari. Baina, hark ekintzarik egiten ez zuela ikusita, biktimen eta giza eskubideen erakundeek hainbat lege-proiektu egin eta aurkeztu dituzte<sup>3</sup>. Horiek eraikuntza kolektiboko prozesuen emaitza izan dira, El Salvadorreko Zigorgabetasunaren Aurkako Mahaiak (MECIES),

---

2 Bilaketa Batzorde Nazionalak gatazka armatuan desagertutako haurren Bilaketa Batzorde Nazionalarekin bat egin zuen. Azken hura 2010eko urtarrilaren 15eko 5 Dekretuak sortu zuen, Mauricio Funes presidente zela, Giza Eskubiden Amerika Arteko Gorteak 2005eko martxoaren 1ean Hermanas Serrano Cruz Vs. El Salvador kasuan emandako epaiari erantzuteko. Desagertutako Haurrak Bilatzearen Aldeko Elkarrekin desgertze behartuko biktima izandako 1000 adingabe erregistratu ditu sortu zenetik. Haur horiek bahitu eta legez kontrako adopzioan eman zituzten.

3 Honako hauek dira: Gatazka Armatuko Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimentzako Erreparazio Integraleko eta Justiziarako Sarbideko Lege Proiektu Berezia (2019), El Salvadorreko Gatazka Armatuaren Testuinguruko Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimentzako Trantsizioko Justiziaren Lege Proiektu Berezia (2021), eta El Salvadorreko Gatazka Armatuaren Biktimentzako Trantsizioko Justiziaren Lege Proiektu Berezia (2024).

Gatazka Armatuko Biktimen Erreparazio Integralerako Legearen aldeko Talde Gestoreak eta Memoria Historikoaren Aldeko Giza Eskubideen Lan Batzordeak sustatuta. Hala ere, gaur arte, ez da proposamen horietako bat ere gauzatu. Erakundeen erantzunaren adibide gisa, 2024ko maiatzean, Biltzar Legegilearen Segurtasun Nazional eta Justizia Batzordeak –Nueva Ideas alderdi ofizialistak kontrolatuta– biktimen lege-proiektua amaitutzat jotzea erabaki zuen, batzorde horren eskakizunekin bat ez zetorrela argudiatuta (Olán, 2024). Biktimek 2024ko urrian aurkeztutako azken proposamena ez da eztabaidatu ere egin Biltzarran. Erabaki horiek erakusten dute gobernuak ez duela biktimekin duen obligazio morala betetzen, ezta Justizia Auzitegi Gorenaren mandatu zuzena ere, hain zuzen ere, gobernuari biktimen aldeko legeak egitea exijitzen diona.

### 3.4. Artxibo militar eta polizialetarako sarbidea oztopatzea

Defentsa Ministerioak gatazka armatuaren urteetako artxibo militar eta polizialetan dagoen informazioa emateari uko egiten dio, eta horixe da, izan ere, El Salvadorreko zigorgabatasuna mantentzen duen oinarrietako bat. Gobernuak berak bermatzen duen jarrera horrek, beraz, justiziarako sarbidea ukatzen die Errepublikako Fiskaltza Nagusian kasuak judizializatu dituzten biktimei. Defentsa Ministerioak sarritan artxibo horiek ez daudela argudiatzen du, baina CONABUSQUEDAko Batzordekide Leonor Arteagak honako haur gogorarazten du: “Esperientziari esker, badakigu ia ezinezkoa dela bi hamarkadatan zehar krimenak sistematikoki planifikatu eta egin zituen erregimen baten informazio guztia suntsitzea. Burokraziak eta batez ere burokrazia militarrek ez dituzte beren paper guztiak ezabatu nahi, batez ere, dokumentu horiek arrakastatsutzat jotzen duten estrategia bati dagozkionean. Egin zutenaz harro jarraitzen dute” (Zenbait egile, 2018: 10).

Nayib Bukelek, 2019an, argi eta garbi adierazi zuen artxibo militar eta polizialak “A-tik Z-ra” zabaltzeko konpromisoa, hau da, epaitegietatik eskatzen zutenaz harago. Baina bere ekintzak kontrako norabidean joan dira. Horren adibide argi eta mediatiko gisa, El Mozote eta inguruko sarraskiaren kasuan, artxibo militarren azterketa judiziala blokeatu dute (Flores, 2020).



## 4. Birmilitarizazioa, autoritarismoa eta inboluzio demokratikoa

---

### 4.1. Segurtasun militarizatua eta salbuespen erregimena

Errepresioz, gerrako krimenez eta gizateriaren aurkako krimenez betetako hainbat urte eta gero, 1992ko Bake Akordioak inflexio puntu bat izan ziren giza eskubideen arloan, eskubide zibil eta politikoei dagokienez behintzat. Bake Akordioei jarraikiz, beste neurri batzuk ere hartu ziren segurtasun eta defentsa arloetan, hala nola Polizia Nazional Zibil bat sortzea, indar militarra erdira murriztea, Indar Armatuak kideen garbiketa eta haren eginkizuna kanpoko eraso militar baten aurrean nazioa eta lurraldearen osotasuna defendatzera mugatzea, hau da, segurtasun publikoko funtzioetatik banatzea. Segurtasunaren arloko aditu Jeannette Aguilaren esanetan, "Bake Akordioen giltzarria barne segurtasunaren desmilitarizazioa eta indar armatua botere zibilaren menpe jartzea izan zen, segurtasun eta defentsa arloetako erreformetan ageri zen bezala" (Aguilar, 2016: 61).


Hala ere, 2000ko hamarkadaz geroztik, El Salvadorreko Estatua eta gizarte birmilitarizatzeko joera handitu zen, Hala, Defentsa Ministerioaren aurrekontua handitu zen eta segurtasuneko helburua bere zentzu militarizatuenean zabaldu zen (Mendia Azkue, 2014: 178). Indar Armatuak ez dio Estatuan duen boterea erabiltzeari utzi; aitzitik, jarduketaren eremu eta eginkizun berriak lortu ditu. Adibidez, gerraren ostean ez da pertsona zibil bat ere egon Defentsa Ministerioaren ardurapean; alderantziz, hura goi mailako militarren eskutan egon da beti. Gainera, Indar Armatuak segurtasun publikoko eginkizunak hartu ditu, eta indar polizialekin baterako operatiboak orokortu dira<sup>4</sup>.

2019an presidente bilakatu zenetik, Nayib Bukelek herrialdearen militarizazioa eta inboluzio demokratikoa larriagotu eta muturreraino eramanean du. Hiperpresidentzialismoaren bitartez eta boterea kontzentraturik, urte gutxitan "Konstituzioan ezarritako Kontrol Sistemak bereganatu ditu. Gaur egun, botere Legegilea eta Judiziala botere Exekutiboaren menpe daude, baita kontrol horizontaleko beste erakunde batzuk ere (Konstituzio Arloko Sala, Errepublikako Fiskaltza Nagusia, Informazio Publikoa Eskuratzeko Institutua, Errepublikako Kontu Gorteko Lehendakaritza, Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretza Nagusia)" (Cristosal, 2024a: 26).

Bukeleren gobernuarekin, Indar Armatuak gerraren aurretik eta gerran zehar zuenaren antzeko garrantzia eta protagonismoa hartu du. Talde kriminalen aurkako borrokaren eta Lurralde Kontrol Plana zabaltzearen aitzakiaz, gobernuak indar militarren eta Defentsa Ministerioaren aurrekontua % 76,8 handitu ditu. Hala, aurrekontu hori Bake Akordioez geroztik

---

4 2009tik 2014ra bitartean zazpi dekretu betearazle eta legegintzako dekretu bat eman ziren, militarrek segurtasun publikoko zereginetan eta eginkizunetan parte har zezaten (Aguilar, 2016: 74).



izandako handiena da (Benítez, 2022). Gainera, erakunde horren balio soziala handitu du, eta El Salvadorreko gizartearen funtsezko eragile bilakatu du. Bukeleren hitzetan, Indar Armatuak da "herrialdearen minbizia sendatuko duena"<sup>5</sup>.

Lehen esan bezala, Indar Armatuak beti izan du boterea, baita Bake Akordioen ostean ere, baina Bulekeren gobernuak muturre-raino eramane du segurtasun militarizatuko eredu hori, 2022ko martxoaren 27an salbuespen-erregimena onartuz eta hura etengabe luzatuz. Izan ere, egoera horrek berme konstituzionalak ezabatu ditu, eta, zenbat erakundek ohartarazi bezala, giza eskubi-

deen urraketak orokortu ditu (Cristosal, 2022: 4). Are gehiago, "salbuespen-erregimene-tan ezabatu ezin daitezkeen" beste garantia batzuk ere ezabatu ditu gobernuak, hala nola "errugabetasun-presuntzioa, bizilekuaren bortxaezintasuna, segurtasun pertsonalerako eskubidea, ohorerako eskubidea, irudi-eskubidea, adierazpen-askatasuna, epaiketa justua izateko eskubidea, kausa beragatik bi aldiz epaitua ez izateko eskubidea, *habeas corpus* prozedura eta legeen atzeraeraginik eza, besteak beste" (Cristosal, 2024b: 16).

El Salvadorreko eta nazioarteko hainbat erakundek egindako ikerketetan (Azul Originario et al., 2024; Cristosal, 2024a y 2024b; OUDH, 2024; HRW, 2024; CIDH, 2024) egiaztatu egin da David Morales Giza Eskubideen prokuradore ohiak esandakoa, hots, "Giza eskubideak urratzeko nahitako politika bat" dagoela (WOLA, 2022). Hala, El Salvador "Bake Akordioen osteko giza eskubideen krisirik larrienean" aurkitzen da; izan ere, gobernuak "giza eskubideen urraketak planifikatzen, agintzen eta gauzatzen ditu, segurtasuna lortzeko hori egin beharra dagoelako aitzakiaz" (Rodríguez, 2022).

Human Rights Watch erakundearen datuen arabera, salbuespen erregimenean 80.000 pertsona atzeman dituzte, eta horien artean 3.000 adingabe. Erakundearen esanetan, zigor gehienak fidagarritasun urriko eta egiaztatu gabeko frogetan oinarritzen dira, hala nola poliziaren edo informatzaile anonimoen lekukotzan. Gainera, "maiz, agintariak aitortzen faltsuak egitera behartzen dituzte adingabeak, abusuzko akordio judizialen bitartez eta, batzuetan, tratu txarrak edo tortura erabiliz" (HRW, 2024). Cristosal Fundazioak egiaztatu egin du 2022ko martxoaren 27tik 2024ko apirilaren 20ra bitartean 261 pertsona heldu eta lau haur hil egin zirela espetxean (Cristosal 2024b: 55). Halaber, UCAREN Giza Eskubideen Behatokiaren arabera, 2023. urtean, *habeas corpus* prozedurako 2.869 kasu erregistratu ziren, eta, horietatik, %0,14 bakarrik onartu zituzten. Hortaz, "ez dago kontrol konstituzionalik edo hark ez du eraginik Estatuaren gainontzeko organoen jardueren gainean. Hala, zentzu hertsian, Estatuak berak edo beste batek Estatuaren baimenarekin beren eskubideak urratu dituela uste duten pertsonak babesik gabe daude" (OUDH, 2024: 138-139).

5 <https://www.facebook.com/magicotvcanal/videos/son-ustedes-los-que-realmente-van-a-curar-a-nuestro-pais-presidente-nayibbukele/351562553692640>

Salbuespen erregimenaren esparruan atxilotutako pertsona gehienak zonalde pobretu eta estigmatizatuetatik datoz, eta batez ere gizon gazteak dira. Hala ere, testuinguru horretan badaude emakumeen aurkako diskriminazioko eta indarkeriako egiturazko faktoreak ere, eta ondorio larriak dituzte emakumeentzat<sup>6</sup>. Cristosal fundazioaren esanetan (2024b: 97), “emakume asko atxilotuak izaten dira talde kriminaletako kideztat hartzen diren gizonen senide izateagatik edo haiekin harremana izateagatik. Beraz, hurkotasunagatik atxilotzen dituzte, 1970ko hamarkadako diktadura militarretan bezalaxe, hau da, norbaiten ama, arreba, alaba, bikotekide ohi, auzoko edo lankide izate hutsagatik”. Halaber, emakume atxilotuen kasuan, egiaztatu egin da ez dagoela haien oinarrizko sexu eta ugalketa osasuneko beharrak betetzeko instalazio eta baldintza egokirik. Egoera hori are arriskutsuagoa da haurdun dauden, erditu berri diren, ebakuntza izan berri duten edo abortua izan berri duten emakumeen kasuan. Gainera, bortxaketako, abusuko eta sexu-erasoko kasuak ere erregistratu dira atxilotutako emakumeen artean (Cristosal, 2024b: 8).

Gerran zehar bezalaxe, Estatuaren segurtasun agenteek sexu-indarkeria erabiltzen ari dira salbuespen-erregimenaren esparruan, baina zabalkunde mediatiko handia duten kasu horiek baino ez dira ezagutzen. Kasu mediatiko horien adibide gisa, sarjentu batek, beste bost militarren konplizitatearekin, 13 urteko neska bat bortxatu zuen landa eremu batean. Biktimaren familiak kasua salatu zuen, eta, Defentsa Ministerioak kasu bakan bat zela adierazi bazuen ere, gizarte zibileko erakundeak salaketa ugari jasotzen ari dira, militarrek eta poliziek nesken eta emakumeen aurka egindako sexu-erasoei dagokienez (Arévalo, 2023). 2019tik 2023ra bitartean, El Salvadorren sexu-indarkeriako 25.000 kasu baino gehiago zenbatu ziren, horietako asko salbuespen-erregimenaren esparruan eta segurtasun indarren eskutik (OUDH, 2024b).



## 4.2. Memoria historikoaren negazionismoa

Salbuespen erregimenean egindako giza eskubideen urraketekin batera, gatazka armatuari eta Bake Akordioei dagokien historiaren narratiba negazionista ofizial bat inposatzen ari dira. Bukeleren gobernuak komunikazio aparatu indartsu bat garatu du, eta horren bitartez gerra eta Bake Akordioak “iruzur” bat izan zirelako ideia finkatu nahi du. Hala, negoziazio

---

6 El Salvadorreko erakunde feministak urteak daramatzate indarkeria horri eta emakumeen giza eskubideen egoerari buruzko ikerketak egiten. 2012tik 2022ra bitarteko datuak ezagutzeko, ikus: Las Dignas, Las Mélidas eta Ormusa, 2024.

prozesuaren eta akordioen balio historikoa ukatzen du eta bere burua bakearen egile gisa aurkezten du.

2022an, gobernuak indarrik gabe utzi zituen memoriaren arloko zenbait neurri sinboliko, hala nola Bake Akordioen Egun Nazionala. 2024an, Bukelek, gainera, FMLNren gobernuak 2017an inauguratutako adiskidetzearen monumentua eraistea agindu zuen. Urte horretan ere, Indar Armatuaren ohorez egindako monumentu bat inauguratu zuen. Azken horretan agertzen dira, besteak beste, gerrako tanke bat, itsasontzi bat eta hegazkin militar bat, eta aisialdiko eta publikoak erakartzeko gune bat izan nahi du. Beraz, diskurtso ofizialek eragile adiskidetsu eta estrategiko gisa aurkezten dute Indar Armaturia, eta horiekin batera, ekintza materialak eta sinbolikoak egiten dira militarismoa gizartean normalizatzeko.



Bukeleren gobernuak El Salvadorreko indarkeria politikoaren historia ezabatzea sustatzen du, eta, hala, gatazka armatuaren biktimak gutxiesten ditu eta Estatuak iraganeko eta oraingo krimenetan duen erantzukizuna baztertzen du. Gobernuaren politika negazionista, beraz, biktimek eta gizarte erakundeek memoria eraikitzeke egiten duten lan handiaren aurka doa.

### 4.3. Gardentasunik eta kontu ematerik ez

El Salvadorreko gaur egungo gobernuak ezaugarri duen beste elementu bat da gardentasuneko eta herritarren kontrolerako mekanismoak ahultzeko politika. Informazio Publikorako Sarbidearen Legeak (2010eko 534 Dekretu Legegilea) herritarrek gobernuaren gestioari buruzko informazioa izan dezaten bermatu nahi du, eta munduko bost legerik onenen artean sailkatua izan zen, baina 2020tik aurrera gobernuak hura betetzeari utzi zion (Cristosal, 2024a: 11).

Bukeleren gobernuak agindutako Informazio Publikorako Sarbideko Institutuaren araudiaren erreformak eta haren kideak kargutik kentzeak erakundearen autonomia eta kontuak emateko eginkizuna mugatu dute (HRW, 2023). Horrek, bada, eskatutako informazioa gordetzeko erabakiak ekarri ditu, eta, hortaz, Informazio Publikorako Sarbidearen Legearen eraginkortasuna murriztu da. Urte horietan, Institutuak informazioa eskatu duten herritarren

alde egindako ebazpenak ere izugarri murriztu dira; hain zuzen ere, 2020an 245 izan ziren, 2021ean 67 eta 2022an 6 (urtarriletik apirilera). Eskaerak ere % 70 murriztu dira, 2019tik 2022ra bitartean, konfiantza publikoa galtzearen ondorioz (OUDH, 2024: 26-27).



Kazetariak eta giza eskubideen aldeko erakundeek salatzen dutenez, Informazio Publikorako Sarbide Unitateek sistematikoki ukatzen dute eskatutako informazioa, batez ere militarrek segurtasun publikoan duten presentziaren irizpideei, Lurraldeko Kontrol Planaren ezarpenari eta horrek krimena murriztean izan duen benetako eraginari buruzko informazioari dagokionean, baita, agintarien abusuak prebenitzeko helburua duten kontuak emateko mekanismoei buruzko informazioaren kasuan ere.

Gardentasuneko eta kontuak emateko politikaren atzerakadaren adibide gisa ere, herrialdea Gobernu Irekirako Aliantzatik irten da. Aliantza horretan, 75 herrialdek eta tokiko 106 gobernuk gizarte zibileko milaka erakunderekin lan egiten dute kontuak ematen dituzten gobernu irekiagoak eraikitzeko. El Salvador 2011n sartu zen Aliantzaz, eta, bertan, bost ekintza plan garatu zituen. Horiei esker, informaziorako sarbidea, zerbitzu publikoaren kexa-sistema eta aurrekontuen eta kontratazio publikoaren gardentasuna hobetu ziren (OGP, 2023).



**1. taula. Zuzenbide Estatuaren birmilitarizazioa eta inboluzioa Nayib Bukeleren gobernuan zehar**

Alderdiak	Ekintzak
<p>Soldadu kopurua handitzea, lurraldean zabaltzea eta Indar Armatuak segurtasun publikoko eginkizunak betetzea</p>	<p><b>Lurraldeko Kontrol Plana</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Soldadu kopurua eta barne segurtasunean duten parte-hartzea handitzea, 1992ko Bake Akordioen aurkako segurtasun militarizatuko politikaren parte gisa.</li> <li>• Militarrek eta poliziak lurraldean zabaltzea, talde kriminalei aurre egiteko eta krimen antolatuak kontrolatutako lurraldeak berreskuratzeko aitzakiaz.</li> <li>• El Salvadorreko gizarte zibileko eta nazioarteko giza eskubideen erakunde askok salatu egin dute Lurraldeko Kontrol Planak pobreziaren kriminalizazioa, botere-abusua eta giza eskubideek urraketa larriak ekarri dituela.</li> </ul> <p><b>Hedapen militarra COVID-19aren pandemian</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernuak Indar Armata erabili zuen pertsonen mugimendua kontrolatzeko eta berrogeialdiko guneak kudeatzeko. Horrek atxiloteta bidegabeak eta indarraren gehiegizko erabilera ekarri zituen. Neurriak zigor gisa pentsatu eta ezarri ziren, ez birusa zuten pertsonak babesteko (Amnistia Internacional, 2020).</li> <li>-• Bukelek publikoki agindu zien segurtasun indarrei berrogeialdia betetzen ez zutenekin "gogorragoak izateko", eta adierazi egin zuen bost axola zitzaizkiola "eskumuturrak bihurritzen" zituztelako salaketak.</li> <li>• Ildo beretik, Justiziako eta Segurtasun Publikoko Ministerioak ohartarazi egin zuen konfinamendu nazionala betetzen ez zuen edonor atxilotze guneetara eramango zutela, "familiarik urrun, eta koarentena zentro horietan birusa hartzeko arriskua dute".</li> </ul>
<p>Estatuaren erakundeetan Indar Armatuaren presentzia eta kontrola handitzea</p>	<p><b>Biltzar Legegilea hartzea eta kolpea epaileei</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indar Armata funtsezko eragilea izan da herrialdeko botere banaketa desegiteko prozesuan.</li> <li>• 2020ko otsailaren 9an Bukele Indar Armatuarekin sartu zen Biltzar Legegilean hura Lurraldeko Kontrol Plana finantzatzeko mailegu bat onartzera behartzeko. Gizarte zibileko eta nazioarteko erakundeek botere-abusu eta larderiako ekintza hura salatu zuten.</li> <li>• 2021eko maiatzean, Biltzar Legegileak, Bukeleren Nuevas Ideas alderdiaren gehiengo absolutua baliatuz Konstituzio Arloko Salako epaile titularrak eta ordezkakoak eta Errepublikako Fiskal Nagusia kargutik kendu zituen, eta horien ordezkari bere aldeko pertsonak jarri zituen.</li> </ul> <p><b>Estamentu militarrek Konstituzioaren erreformetan parte hartzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Defentsa Ministerioak 2021ean Konstituzioaren erreformak aztertze berriaz sortutako Batzordean parte hartu zuen. Hainbat abokatu konstituzionalistak ohartarazi egin zuten Indar Armatuaren eginkizun politikoa pixkanaka legalizatzeko arriskua zegoela (Moreno, 2021). Azken urteetan egindako erreforma konstituzionalak Bukele boterean mantentzera bideratu dira; batez ere Konstituzioaren 248. Artikuluaren erreforma, horrek presidente izateko etengabe aurkezteko aukera emango bailioke (Taglioni, 2024).</li> </ul>

Alderdiak	Ekintzak
<p>Defentsa Ministerioa aurrekontuan eta polikan indartzea</p>	<p><b>Indar Armatuaren aurrekontua etengabe handitzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2019tik 2022ra bitartean, Indar Armatuak 676.99 milioi dolar jaso ditu bere eginkizunerako. Hala, bere aurrekontua % 76.8 hazi da. Aldi horretan, 6.591 soldadu berri sartu dira, eta 2021. urtea hamarkada osoan graduatu gehien izan dituen urtea izan da, guztira 3.124 (SSPAS, 2022: 24).</li> <li>• Defentsa Nazionalerako 2023ko aurrekontua 233.474,116 dolarrekoa izan zen, eta, hori ondorengo aurrekontu-errefortzuak kontuan hartu gabe. Izan ere, 2023ko irailean, Bukelek 30 milioi dolarreko errefortzu bat iragarri zuen Lurraldeko Kontrol Planaren seigarren faserako. Diru hori ISAFORP lanbide prestakuntzako institutuaren funtzionamendura bideratutako aurrekontutik hartu zuen (Parada, 2023). 2025. urterako, Defentsa Ministerioak 314 milioi dolar baino gehiago ditu esleituta, hau da 2024an baino 53 milioi gehiago (López, 2024).</li> <li>• Indar Armatuaren aurrekontua eta segurtasun publikoan duen garrantzia handitzearekin batera, Segurtasun Agentzia Pribatuak ere indartu dira. Esate baterako, 2021ean, 428 agentzia zeuden, 19.338 agenterekin eta 26.300 armarekin (Martínez, 2021).</li> <li>• Birmilitarizazioaren aurrean, gizarte zibileko zenbait sektore eta nazioarteko erakundeak ikuspegi prebentiboago eta ez hain hertsagarri baten alde agertzen dira indarkeriaren gaia lantzeko.</li> </ul> <p><b>Segurtasun politikarekin lotutako eremuak ixtea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2019an, Bukelek Segurtasun Herritarraren eta Bizikidetzaren Batzorde Nazionala ezabatu zuen. Horretan, 2014tik, gobernuko erakundeak eta diplomaziako, nazioarteko lankidetzako, elizako, akademiako, enpresa sektoreko, Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzako eta beste gizarte erakunde batzuetako ordezkariak biltzen ziren, herritarren segurtasunari buruzko akordioak hartzeko. Haren ordez, gobernuak erabakiak zentralizatu zituen eta bere Segurtasun Kabinetearen esku utzi zituen. Horretan Defentsa Ministerioak parte hartzen du, baina atea ixten zaio gizarte zibilari.</li> </ul>
<p>Indar Armatuaren eta balio militaristen gorespen soziala</p>	<p><b>Narratiba negazionista eta Indar Armatuaren aldekoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bukelek publikoki ukatu eta gutxietsi egin ditu El Salvadorreko historiaren funtsezko gertakariak eta adostasunak, hala nola Bake Akordioak edota gatazka armatuko giza eskubideen urraketetan Indar Armatuak izandako erantzukizuna.</li> </ul> <p><b>Komunikazio instituzionala botere militarren zerbitzura</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernuak komunikazio aparatu handi bat bultzatu du, sare sozialen eta hedabide tradizionalen bitartez, Indar Armatua segurtasunaren eta bakearen bermatzaile gisa aurkezteko, eta gatazka armatuan erabili izan zen horren antzeko gerrako diskurtsoa erabiltzen du gobernuak, barne eta kanpo etsaiak nabarmentzen dituena.</li> <li>• Azken batean, gobernuak Indar Armatua goraiatzeko eta militarizazioa gizartean zabaltzeko politika bat garatzen du. Horren ondorioz, militarrek gero eta presentzia handiagoa dute ekitaldi publikoetan, gerrako makinaria erakusten da eta monumentuak eraikitzen dituzte Indar Armatuaren ohorez, besteak beste.</li> </ul>

Iturria: egileak.

## 5. Ondorioak

---

El Salvadorren, bada, trantsizioko justizia prozesu bat egiteko dago, gerran zehar egindako giza eskubideen urraketa larriei aurre egiteko. Bake akordioak sinatu eta 33 urtera, ez dago biktimen egia, justizia eta erreparazio eskubidea eta ez errepikatzeko bermeak betetzen dituen politika publikorik.

Gerraren ostean, Alianza Republicana Nacionalista (ARENA) alderdi eskuindarraren lehen lau gobernuek Indar Armatus babesteko neurriak ezarri zituzten, hura gerrako krimenen eta gizatariaren aurkako krimenen erantzule nagusia zen arren. Hurrengo gobernua, FMLN taldearenak, neurri gutxi batzuk ezarri zituzten, sinbolikoak (biktimei barkamena eskatzeko ekitaldi ofizialak, adiskidetzeari buruko monumentuak eta memoria historikoa gordetzeko ekintzak) eta politikoak eta materialak (Gatazka armatuaren testuinguruan desagertutako haurren Bilaketa Batzorde Nazionala 2010ean, Barne gatazka armatuaren testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketa larrien biktimei erreparazioa emateko Programa 2013an, edo Pertsona Heldu Desagertuen Bilaketa Batzorde Nazionala 2017an).

Bere burua “diktadore cool” gisa aurkezten duen Nayib Bukelek, bere azken bi legegintzaldietan, Latinoamerikako eta Karibeko populismo zigortzailea ordezkatzeko duen gobernuak garatu du El Salvadorren. Bukelek gatazka armatuko krimenen zigorgabetasun historikoa mantentzen du eta ez du nazioarteko estandarren arabera trantsizioko justiziako agenda bat bultzatu nahi. Aitzitik, arlo horretan egindako aurrerapen guztiak desagutzen eta blokeatzen saiatu da. Gizarte indarkeriaren aurkako borrokaren argudioa erabiliz, Bukeleren gobernuak botere banaketa desagin du eta Bake Akordioez geroztik herrialdean izandako inboluzio demokratikorik handiena ekarri du. Gobernuak betikotu egin du 2022an ezarritako salbuespen-erregimena, eta, haren esparruan, giza eskubideen urraketak egiten ditu.

Hala, Bukelek politika autoritarioak eta errepresio neurriak sustatu ditu herrialdeko desparekotasun estrukturalak eragindako arazoei erantzuteko eta desparekotasun horiek betikotzen dituzten politika ekonomikoak inposatzeko. Bere “segurtasun ereduaren” parte gisa, gobernuak Indar Armatuaren alde jokatu du azken urteotan, bere aurrekontua handituz eta segurtasun publikoko eginkizunetan lidergoa emanez, baita erabaki instituzionaleko eta politika publikoko funtsezko eremuetan ere.

Aurreko errepresio aldietan bezalaxe, gizarte mugimenduko erakundeek lana (kolektibo feministak, giza eskubideen aldekoak, ingurumena babestekoak, etab.) jazartzen eta kriminalizatzen dute; erakunde horiek salbuespen erregimena, Estatuaren indarkeria eta Bukeleren autoritarismo zigortzailea salatzen baitute. Gaur egungo egoerak, beraz, erronka handia dakar erakunde horientzat eta, oro har, El Salvadorreko gizartearentzat; izan ere, Indar Armatuaren hegemonia politikoa eta soziala leheneratzeko arriskua dago.



## 6. Bibliografía

---

- Aguilar Jeannette (2016). "El rol del ejército en la seguridad interna en El Salvador: lo excepcional convertido en permanente", in Fundación Heinrich Böll. *Re-conceptualización de la violencia en el Triángulo Norte. Abordaje de la seguridad en los países del norte de Centroamérica desde una visión democrática*. San Salvador, El Salvador (61-84).  
[https://mx.boell.org/sites/default/files/reconceptualizacion\\_de\\_la\\_violencia\\_web-final.pdf](https://mx.boell.org/sites/default/files/reconceptualizacion_de_la_violencia_web-final.pdf)
- Amnistía Internacional (2020). "Nada nuevo bajo el sol: represión y militarización de la seguridad pública en El Salvador", *Noticias*, urriak 5.  
<https://www.amnesty.org/es/latest/news/2020/10/represion-militarizacion-seguridad-publica-el-salvador/>
- Antón-Mellón, Juan; Álvarez, Gemma; Rothstein, Pedro A. (2017). "Populismo punitivo en España (1995-2015): presión mediática y reformas legislativas". *Revista Española de Ciencia Política*, 43: 13-36. <https://hdl.handle.net/2445/120915>
- Arévalo, Karla (2023). "Es falso que la violación de una niña cometida por militares sea un caso aislado". *Gato Encerrado*, urriak 3.  
<https://gatoencerrado.news/2023/10/05/es-falso-que-la-violacion-de-una-nina-cometida-por-un-militar-sea-un-caso-aislado>
- Azul Originario; AMATE; Cristosal; FESPAD; IDHUCA; Red Salvadoreña de Defensoras de Derechos Humanos; SSPAS (2024). *El Modelo de Bukele: seguridad sin Derechos Humanos. El Salvador a dos años de régimen de excepción*. San Salvador, El Salvador.  
<https://sspas.org.sv/sspas/project/seguridad-sin-ddhh>
- Benítez, Beatriz (2022/01/15). "La Fuerza Armada de Bukele goza del mayor presupuesto desde los Acuerdos de Paz", *Gato Encerrado*, urtarrilak 15.  
<https://gatoencerrado.news/2022/01/15/la-fuerza-armada-de-bukele-goza-del-mayor-presupuesto-desde-los-acuerdos-de-paz>
- Centro para la Promoción de Derechos Humanos "Madeleine Lagadec" (CPDH) (2006). *Masacres. Trozos de la historia salvadoreña narrada por las víctimas*. San Salvador, El Salvador.
- Cristosal (2022). *Análisis Jurídico del Régimen de Excepción decretado el 27 de marzo de 2022*. San Salvador, El Salvador.  
<https://cristosal.org/ES/analisis-juridico-del-regimen-de-excepcion-decretado-el-27-de-marzo-de-2022-2>
- Cristosal (2024a). *Informe Diez patrones de corrupción en El Salvador*  
<https://cristosal.org/ES/wp-content/uploads/2024/10/Informe-de-patrones.pdf>
- Cristosal (2024b). *El silencio no es opción. Investigación sobre las prácticas de tortura, muerte y justicia fallida en el régimen de excepción*.  
<https://cristosal.org/ES/el-silencio-no-es-opcion-informe-completo>

- Cristosal (d.g.). *El mozote y lugares aledaños. La peor masacre ocurrida en América Latina en tiempos modernos*. <https://cristosal.org/ES/el-mozote>
- Due Process of Law Foundation (DPLF) (2019). *Análisis de la Sentencia de la Sala de lo Constitucional de la Corte Suprema de Justicia de El Salvador que declaró la inconstitucionalidad de la Ley de Amnistía de 1993*. Washington D.C. [https://back.dplf.org/sites/default/files/2019\\_07\\_analisis\\_sentencia\\_de\\_inconstitucionalidad\\_de\\_la\\_ley\\_de\\_amnistia\\_2016.pdf](https://back.dplf.org/sites/default/files/2019_07_analisis_sentencia_de_inconstitucionalidad_de_la_ley_de_amnistia_2016.pdf)
- Flores, Emerson (2020). "Gobierno de Bukele también bloquea archivos militares tras decir que los abriría "de la A a la Z"', *Gato Encerrado*, irailak 22.ç <https://gatoencerrado.news/2020/09/22/bukele-tambien-bloquea-archivos-militares-tras-decir-que-los-abriria-de-la-a-a-la-z>
- Giza Eskubideen Amerika Arteko Batzordea (CIDH) (2024). *Informe Estado de excepción y derechos humanos en El Salvador*. [https://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/2024/Informe\\_EstadoExcepcionDDHH\\_ElSalvador.pdf](https://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/2024/Informe_EstadoExcepcionDDHH_ElSalvador.pdf)
- Guzmán Orellana, Gloria (2024). "Violencia sexual en el conflicto armado salvadoreño. Una mirada desde la memoria histórica y perspectivas para la justicia", in Huacal, *Las Voces silenciadas. La violencia sexual contra las mujeres como arma de guerra durante el conflicto armado de El Salvador*. Bartzelona (32-45). [https://huacalong.cat/publicacions/#flipbook-df\\_4074/1](https://huacalong.cat/publicacions/#flipbook-df_4074/1)
- Guzmán Orellana, Gloria; Mendiá Azkue, Irantzu (2013). *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*. Bilbo: Hegoa (UPV/EHU). <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/292>
- Human Rights Watch (2023). *El Salvador: eventos de 2022*. <https://www.hrw.org/es/world-report/2023/country-chapters/el-salvador>
- Human Rights Watch (2024). "Su hijo no existe aquí". *Violaciones de derechos humanos de niños, niñas y adolescentes durante el régimen de excepción de El Salvador*, uztailak 16. <https://www.hrw.org/es/report/2024/07/16/su-hijo-no-existe-aqui/violaciones-de-derechos-humanos-de-ninos-ninas-y>
- López, Alberto (2024). "El Salvador aumentará su presupuesto de Defensa en casi 53 millones de dólares para 2025", *infodefensa.com*, urriak 7. <https://www.infodefensa.com/texto-diario/mostrar/5021480/salvador-aumentara-presupuesto-defensa-casi-53-millones-dolares-2025>
- Las Dignas; Las Méridas; ORMUSA (2024). *Informe sobre la situación de derechos humanos de las mujeres en El Salvador 2012-2022*. San Salvador, El Salvador: Red Feminista Frente a la Violencia Contra las Mujeres (REFEM). <https://ormusa.org/wp-content/uploads/2024/07/Informe-sobre-la-situacion-de-los-DH-de-las-mujeres-2012-2022-ES.pdf>
- Martínez, Dina Marbely (2021). *La seguridad privada en El Salvador*. IEPADES, FESPAD eta DECAF. <https://iepades.org/wp-content/uploads/2022/03/EL-SALVADOR.pdf>
- Mendiá Azkue, Irantzu (2014). *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*. Madril: Tecnos.

- Moreno, Karen (2021). "Constitutionalists warn that the FAES seeks to legalize its political role". *Gato Encerrado*, urtarrilak 25. <https://gatoencerrado.news/2021/01/25/constitucionalistas-advierten-que-la-faes-busca-legalizar-su-rol-politico/>
- Observatorio Universitario de Derechos Humanos (OUDH) (2024a). *Informe Anual 2023. El estado de los derechos humanos en El Salvador*. Universidad Centroamericana José Simeón Cañas (UCA). <https://oudh.uca.edu.sv/cms/publicaciones?lang=es>
- Observatorio Universitario de Derechos Humanos (OUDH) (2024b). *Informe sobre hechos de violencia sexual en El Salvador, 2019-2023*. <https://oudh.uca.edu.sv/cms/publicaciones?lang=es>
- Olán, Eugenia (2024). "Archiving the proposal of the Transitional Justice Law for 'not being in accordance with the requirements'", *Revista La Brújula*, maiatzak 16. <https://revistalabrujula.com/2024/05/16/archivan-propuesta-de-ley-de-justicia-transicional-por-no-estar-acorde-a-las-exigencias>
- Open Government Partnership (OPG) (2023/03/28). "El Salvador exits the international alliance on open government". *Noticias*. <https://www.opengovpartnership.org/es/news/el-salvador-exits-international-partnership-on-open-government>
- Parada, Abigail (2023). "Government says it will use \$30 million of INSAFORP to finance the Territorial Control Plan", *elsalvador.com*, irailak 15. <https://www.elsalvador.com/noticias/nacional/fondos-plan-control-territorial-insaforp/1090433/2023/>
- Rodríguez, Milton (2022). "David Morales: 'We are in the most serious crisis of human rights since the Peace Agreements'", *elsalvador.com*, uztailak 16. <https://www.elsalvador.com/noticias/nacional/david-morales-estamos-crisis-grave-derechos-humanos/978304/2022>
- Servicio Social Pasionista (SSPAS) (2022). *Cambios y continuidades en el rol de la Fuerza Armada en la seguridad ciudadana, 1992-2022*. San Salvador, El Salvador. <https://sspas.org.sv/sspas/wp-content/uploads/2022/07/Cambios-y-continuidades-rol-FAES-1992-2022.pdf>
- Taglioni, Augusto (2024). "Bukele advances in the reform of the Constitution to perpetuate in power", *La Política online*, maiatzak 2. <https://www.lapoliticaonline.com/internacionales/bukele-reelccion>
- Washingtoneko Latinoamerikako Gaietarako Bulegoa (WOLA) (2022). "David Morales: 'There is a deliberate policy to violate human rights'", irailak 16. <https://www.wola.org/es/analysis/david-morales-politica-deliberada-para-violar-derechos-humanos>
- Zenbait Egile (2018). *Los usos de la verdad: justicia, archivos de la Comisión de la Verdad y la búsqueda de personas desaparecidas en El Salvador*, Cardozo Law Institute in Holocaust and Human Rights (CLIHHR) antolatutako Foroa, apirilak 23, New York. <https://back.dplf.org/es/news/los-usos-de-la-verdad-los-archivos-de-la-comision-de-la-verdad-la-justicia-y-la-busqueda-de>



BIKTIMENTZAKO  
ERREPARAZIOA